

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2022ko URRIAREN 4an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Hezkuntza Zinegotzia)
- Lide Gonzalez (Berritzeguneko Euskara teknikaria)
- Ana Jesus Bilbao (Allende Salazar ikastetxea)
- Itxaso Garteizaurreakoa (San Fidel Ikastola)
- Garazi Barrenetxea eta Roke Ojanguren (Seber Altube Ikastola)
- Gema Astigarraga (Barrutia Ikastetxea)
- Igor Mejías (Barrutialde Institutua)
- Lourdes Madariaga (Gernika Institutua)
- Ager Cuadrado (Mertzedeko ikastetxea)
- AEK-ko ordezkariak (Iratxe Garmendia eta Ekaitz Cremos)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Ezin egotea zuritu dutenak:

- Iñigo Magunagoikoetxea (Euskara zinegotzia)
- HHI-CEPAko ordezkariak

Hasiera ordua: 10:00

Amaiera ordua: 11:30.

Batzarra hasi baino lehen, Idazkariak proposamena egin du AEK-rekin zerikusia duten gaiekin hasteko, erakunde horretako ordezkariak libratu daitezen. Ontzat eman da proposamena eta hurrengoak aztertu dira:

- **Gurasoei/aittite-amumei/ume zaintzaileei begirako eskaintza.-** Batzordeko idazkariak egin du ikastaro berezi hauen historia (AEK-ren ardurapean garatu izan ziren talde berezi eta ez-homologatu gisa urte batzuetan, gero homologatu egin ziren eta finantzazioa aldatu zen; azken urteetan talderik sortu ez eta talde arruntetan integratu izan dira eskatzaileak). Doako eskaintza egingo zaie, behin eta zentroaren egiaztagiri bat aurkezten badute esanda bertako ikasle baten guraso/aittite-amuma/zaintzailea dela. Euskara ikasteko diru-laguntza deialdi orokorrean aintzat hartuko dira eta doakoa eskainiko zaie (alde aurretik matrikula ordaindu eta, eskaera eginik, lehenengo matrikularen %50a eta bukatu ostean, asistentzia egiaztatuz, beste %50a). Gurasoei bidaltzeko fitxa aztertu da eta gogorarazi zaie fitxa horrekin euskaltegia jo behar dela (Udal Euskaltegia zein AEK Euskaltegia).

- **DBHko ikasle etorkinei errefortzua.**- AEK-ko ordezkariak adierazi du euren koordinakundean aztertu izan dela gaia eta erabaki dutela zerbitzu hori emateari uztea, pedagogikoki ez delako euren esparrua. Dena dela, alternatibaren bat aurkitzen laguntzeko prest daudela (udalerriko akademiaren bat,...). Horrekin lotuta, komentatu da beste aukera bat izan daitekeela zentroko irakasle baten orduak horretarako dedikatzea. Batzordeko idazkariak adierazi du finantzazioari dagokionean jarduera hori diru-laguntza deialditik laguntzen dela eta justifikatzeko orduan akademiaren faktura edo irakaslearen dedikazio-orduen kostuaren egiaztagiria aurkeztu ahal izango dela.
- **Eusluderrak egitasmoa, DBH 3. Eta 4. Mailetako ikasleei zuzendua.**- Itxaso Garmendiak azalpenak eman ditu egitasmoari buruz eta prest agertu da interesatuta leudekeen zentroetara joan eta sakonago tratatzeko. Helburua da gazteen hizkuntza ohiturak aldatzea, EHU-n sortutako metodologia baten oinarriturik. Azken urteetan Gernika Institutuan eta Barrutialde Institutuan garatu izan da eta aurrerago garatu zen baita Mertzede ikastetxean ere. Ikasle etorkinekin lantzeko ere erabili izan da dinamika hau, behin eta gutxienerako euskara maila izanez gero.
- **Berbalaguneko guraso taldeak.**- Asmoa dute zentroetako guraso elkarten bitartez guraso taldeak sortzeko, Berbalagun proiektuaren dinamikan txertatzearen. Horretarako zentroetara zuzenduko dira Berbalaguneko teknikaria eta AEK-ko zuzendaria.
- **11 orduko irakurraldia.**- Berbalagun proiektuarekin lotutako jarduera da, aurtengoan abenduaren 2an burutuko dena. Batzarreratuek ezagutzen dute dinamika eta dagokionean emango zaizkie zehaztasunak. Irakurri beharreko liburua aukeratzeko proposamenak egiteko gonbitea egin da.

Jarraian, jatorrizko gai zerrendari eutsi zaio.

1.- 2022-2023 IKASTURTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDI OROKORRAREN ARAUDIA AZTERTU ETA EGOKITZEA, HALA BALEGOKIO.

Batzordeko idazkariak azalpenak eman ditu banatu den araudiaren zirriborroari buruz. Aurreko ikasturteko berbera omen da eta falta den bakarra deialdirako erabiliko den diru kopurua zehaztea da. Adierazi duenez, 2021-2022 ikasturtean erabilitako kopurua 45.300 eurokoa izan zen.

San Fidel ikastolako ordezkariak adierazi du eskuartean daukaten gai bat dela “sexu heziketa”-rena eta Udalak bere kabuz martxan jarri eta gero urte batzuetan udalak fakturak asumitu ondoren, une honetan ez daukatela udal laguntzarik. Bere ustez, funtsezkoa da programa hori ikasleentzat eta batzartuak bat datoz horrekin, nahiz eta deialdi honekin loturarik izan ez.

Erabakia.-

- 1) **Sexu Heziketarena** deialdi honetatik kanpo uztea, baina instituzioen laguntza bideratzea dagokion udal sailarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin argitzea.
- 2) **Deialdiko araudiari** dagokionean, aztergai geratu da eta hurrengo batzarrerako zentroen ekarpenik jaso eta aztertzea ebazteko.

2.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA KOMUNAK FINKATZEA (ZEINTZUK ETA ZELAN BURUTU).-

Aztertu egin dira eskolaz kanpoko jarduerak banan-banan eta, bizi dugun egoera berri honetara egokitu beharra izanik, honako **ERABAKIAK HARTU DIRA:**

A).- IDAZLAN KOADERNOAK.- Erabakia:

Balorazio positiboa egin dute batzarkideek eta dinamika berdinarekin jarraitzea onartu da. Hurrengo batzarrean finkatuko dira zehaztasunak (irakurketa ekitaldiak non egin, noiz eta abarrak).

B).- DANTZARI EGUNA.- Erabakia:

- Bizi dugun egoera ikusita, normalizaziora bueltatzea Dantzari Eguna burutuz.
- Dantzari egunerako datak aztertu ondoren, data egokitzen jo da apirilaren 23a.

C).- ANTZERKI JARDUNALDIAK.- Aurreko ikasturteko jardunaldien gora-beherak aztertu dira eta izan ziren arazoek gaineko hausnarketa egin da. **Erabakia:**

- Hurrengo batzarrean finkatuko dira zehaztasunak, partaideen ekarpenak aztertuz.
- Jardunaldiak burutzeko data egokitzen jo dira maiatzaren 8tik 12ra bitartekoak. Beraz entseguetarako maiatzaren 2tik 5erakoak lirateke.

3.- ZENTROEI BEGIRAKO BESTE KANPAINA ETA JARDUEREN BERRI EMATEA:

a).- Ikasle etorkinen errefortzua.- Batzarra hasi eta lehenengo puntuan aztertu da.

b).- Guraso/aittitte-amuma/ume zaintzaile erdaldunei eskaintza.- Gai hau ere lehenengo puntuan aztertu da.

c).- Hazi Hezi aldizkariaren harpidetza.- Matrikulatu berriak diren HH-ko ikasleen guraso euskaldunei zuzendua da ekimen hau eta zentroetara bideratutako gutuna komentatu da. Gutun horren azpialdean dagoen fitxa bete behar du interesatuak eta Euskara Zerbitzuen entregatu aste biko epean.

d).- Euskara Zine Aretoetara programa.- Zentroetako ordezkariak adierazi dute eskaintza horren berri izan dutela. Banatu egin da “Tinko” eta “Irudi biziak” enpresen informazioa (programazioa eta kontaktuak).

e).- Berbalaguneko “11 orduko irakurraldia”.- Batzarreko lehenengo puntuan aztetu da honi dagokiona.

f).- Euskaraldia (berri ematea).- Batzordeko idazkariak eman du informazioa:
- Euskaraldiaren lehenengo fasea entitateen izen-ematearena izan da. Irailaren amaierarako bukatzeko asmoa bazen, luzatu egin da urriaren 31ra arte.
- Orain partikularren izen-ematearen fasea ireki da eta kaleratu den kartela banatu zaie.

4).- ESKAERAK ETA GALDERAK

San Fidel ikastolako ordezkariak bi galdera/erregu egin ditu:

- Zentroetara joaten zen Olentzeroarena berreskuratu egin beharko litzatekeela. Batzartutako eskoletako ordezkariak bat egin dute eskaera honekin. Dagokion udal sailari bideratuko zaio eskaera.
- Mila herrikoiazen lasterketa berreskuratuko den. Batzartuak bat datoz berreskuratzearekin. Kirol Erakundeari eskatuko zaio informazioa.

Hurrengo batzarra, urriaren 18an egitea erabaki da (goizeko 10:00etan).

Gaiak:

- 1.- Diru-laguntza deialdiaren araudia ebaztea (ekarpenak aztertu ondoren).
- 2.- Idazlan koadernoak
- 3.- Dantzari eguna
- 4.- Antzerki jardunaldiak
- 5.- Osterantzekoak (etorkinen errefortzurako informazioa, HAZI-HEZI aldizkariaren harpidetza eskaerak, euskaraldiaren ingurukoak,...).


Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko Zinegotzia,

Batzordeko idazkaria,



Iñaki Gorroño Etxebarrieta



Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hezkuntza normalizaziorak teknikaria